

Bizkaiko Ahalduen Nagusiak 146 milioi euroko inbertsioa duen erregai sintetikoaren lantegiko obrak bisitatu ditu


- **Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahalduen Nagusiak erregai sintetikoaren lantegia bisitatu du Petronorrek erregai berriztagarrien inguruan dituen estrategiak eta konpainiak deskarbonizazioaren arloan abiarazitako ekimenak ezagutzeko**
- **Erregai sintetikoaren lantegia urtean 2.000 tona ekoizteko gaitasuna izango du, 146 milioi euroko inbertsioa tarteko, eta erabat jardunean egongo da 2027aren hasieran**
- **Proiektu honek teknologia berritzaile eta esperimentalak izango du, eta honi esker, instalazio aitzindaria izango da, eta munduan horrelako ezaugarriak dituzten instalaziorik handienetakoa**

Abanto Zierbana, 2026ko otsailaren 3a. Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahalduen Nagusiak Petronor Bilboko Portuan eraikitzen ari den erregai sintetikoaren lantegia bisitatu du gaur goizean. Ikustaldian, bertatik bertara ezagutu ahal izan ditu konpainiak erregai berriztagarrien inguruan dituen estrategiak, baita Petronorrek deskarbonizazioaren arloan abiarazitako ekimenak ere.

Bisita honekin bat eginez, itsasontziz iritsi da 1.200 tonako egitura metalikoa, ekipamendu guztiei eutsiko diena. Eragiketa honetan 190 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute, aurrefabrikatutako egitura Petronorreko terminalera eramateko maniobra osoa egin ahal izateko. Hauxe izango da erregai sintetikoak ekoizteko instalazio nagusia, atzitutako CO₂tik eta portuan bertan instalatuta dagoen 10 MWeko elektrolizagailuak ekoiztutako hidrogeno berriztagarritik abiatuta.

Egitura osatzen duten hiru moduluak 2024ko udaberrian hasi ziren eraikitzen. Behin amaituta, 3,5 itsas-miliako bidaia egin dute Sollana lurmuturreko kairaino, izan ere, bertan daude Petronorren Deskarbonizazio Huba eta egun eraikitzen ari den erregai sintetikoaren lantegia.

Erregai sintetikoak erakusteko instalazioa



Erregai sintetikoen lantegia

Trantsizio energetikoaren aldeko konpromisoaren harira, Petronor eta Repsol erregai sintetikoen lantegia eraikitzen ari dira, urtean 2.000 tona ekoizteko gaitasuna izango duena.

146 milioi euroko inbertsioa tarteko, erregai sintetikoen lantegiak teknologia berritzaile eta esperimentala izango du, eta honi esker, instalazio aitzindaria izango da, eta munduan horrelako ezaugarriak dituzten instalaziorik handienetakoa.

Atzitutako CO₂aren eta Deskarbonizazio Hubean bertan kokatuta dagoen 10 MWeko elektrolizagailuak ekoiztutako hidrogeno berriztagarriaren bidez, instalazioak diesela eta SAF bezalako erregai sintetikoak sortu ahal izango ditu, baita nafta ere, gasolinaren osagai nagusia. Produktu horiek ohiko erregaiei ezaugarriak dituzte, eta egungo edozein ibilgailutan erabili ahal izango dira: automobiletan, kamioietan, itsasontzietan edo hegazkinetan.

2027aren hasieran, lantegia erabat jardunean egongo da, aurreikuspenen arabera.

Petronorri buruz

Petronor, Repsolek eta Kutxabankekin partaidetua, Bizkaiko industriaren eragile nagusia da, zuzeneko enplegua ematen die 940 pertsonari eta zeharkako enplegua beste 6.000 baino gehiagori. Azken bost urteetan, 1.200 milioi euro baino gehiago inbertitu eta 201 pertsona kontratatu ditu.

Bizkaiko lurraldeari egiten dion ekarpenaren isla da Bilboko Portuko trafikoan duen pisua, % 40koa alegia, eta harexeri dagokio Bizkaiko Foru Ogasunaren diru-bilketaren % 9. Petronorrek hiru foru-ogasunen eta Eusko Jaurlaritzaren artean banatu den 936 milioi euroko ekarpena egin du.



www.petronor.com

VK Comunicación

Informazio gehiago:

Nahia Larrieta Ruiz

944 01 53 06 / 686 07 63 98

nahia@vkcomunicacion.com